



Idiazabalgo
Udala

OHIKO UDALBATZARRA

2022ko abenduaren 1ean

LEKUA: Udaletxeko Batzar Gela

LEHENDAKARIA: Iñaki Alberdi Iparragirre (EH BILDU)

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Aloña Barandiaran Munduate (EH BILDU)

Iñaki Arriaran Murgiondo(EH BILDU)

Ioana Prados Alustiza(EH BILDU)

Aritz Ugarte Munduate.(EH BILDU)

Eunate Elio Cemborain(EH BILDU)

Ioritz Imaz Baztarrika (IZAL BAI)

EZ BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Aitzol Mendizabal Malkorra (IZAL BAI)

Andoni Gomez Aldanondo (IZAL BAI)

Igor Ariztimuño Iparragirre (IZAL BAI)

Iker Zabaleta Urcelai (IZAL BAI)

IDAZKARIA: Garazi Arraibi Larrea

DEIALDIA: Lehenengoa

ORDUA: Hasiera: 18:00etan

GAI ZERRENDA

1. Aurreko akta onartzea, hala badagokio.

Ioritz Imazek esaten du aurreko bileran Igor Ariztimuñok ez zuela esan beharrezkoa zela trafiko ordenantza, baizik eta isunak aplikatzen hasi behar zela; hori dela eta, zentzu horretan zuzentzen da aurreko akta.

2. Dekretuen berri ematea.

Ez da dekretuen zerrenda bidali bilera aurretik, beranduago bidali zaie.

3. 2023ko aurrekontuak onartzea, hala badagokio.

IZAL BAIk 2022ko azaroaren 28an ospatu zen Ogasun Batzordean bezala (akta hori Udalbatza honetarako deialdiarekin batera bidali zen) bere ikuspuntua eman eta bestelako kantitate batzuk proposatu zituen. Horri buruz hitz egin ondoren, EH Bilduk aurkeztu duen aurrekontuen proposamena bozkan jarten dute eta hau da emaitza:

Aldeko botoak: 6; Iñaki Alberdi, Aloña Barandiaran, Ioana Prados, Aritz Ugarte, Iñaki Arriaran, Eunate Elio

Kontrako botoak: 1; Ioritz Imaz

Abstentzia: 0

Beraz, honako hau ONARTZEN DA:

2023ko aurrekontuaren proposamena onartzen da eta GAORA bidaltzen da bere argitalpenerako.

SARREREN AURREKONTUA

PRESUPUESTO DE INGRESOS

Kapitulua	Izena	Euro	Capítulo	Denominación	Euros
1	Zuzeneko zergak	849.231,62	1	Impuestos directos	849.231,62
2	Zeharkako zergak	80.000	2	Impuestos indirectos	80.000
3	Tasak eta bestelako sarrerak	671.787,18	3	Tasas y otros ingresos	671.787,18
4	Transferentzia arruntak	2.453.046,05	4	Transferencias corrientes	2.453.046,05
5	Ondare sarrerak	10.000	5	Ingresos	10.000

				patrimoniales	
6	Inbertsio errealen besterentzea	0	6	Enajenación de inversiones reales	0
7	Kapital transferentziak	1.257.800	7	Transferencias de capital	1.257.800
9	Finantza pasiboak	1.869.200	9	Pasivos financieros	1.869.200
	Guztira	7.191.064,85		Total	7.191.064,85

GASTUEN AURREKONTUA

PRESUPUESTO DE GASTOS

Kapitulua	Izena	Euro	Capítulo	Denominación	Euros
1	Pertsonal arloko gastuak	1.162.360,99	1	Gastos de personal	1.162.360,99
2	Ondasun arrunten eta zerbitzu erosketak	2.017.688,64	2	Compra de bienes corrientes y servicios	2.017.688,64
3	Finantza gastuak	8.020	3	Gastos financieros	8.020
4	Transferentzia arruntak	586.936,75	4	Transferencias corrientes	586.936,75
6	Inbertsio errealak	3.345.542,8	6	Inversiones reales	3.345.542,8
9	Finantza pasiboak	70.000	9	Pasivos financieros	70.000
	Guztira	7.190.549,18		Guztira	7.190.549,18

4. Kreditu gehigarriari dagokion 2022-KALD-000015-00 kreditu aldaketa espedientea onartzea, hala badagokio.

Espedientea: 2022-KALD-000015-00

KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago

nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 226.01.414.00 2022	Baserritarren eguna	2.000,00	3.000,00	5.000,00
1 221.00.414.00 2022	Mater. Hornik. Besteak. Gazta	900,00	2.000,00	2.900,00
1 481.02.311.00 2022	Tolosaldeko Mankomunitateko hiltegia	1.500,00	169,00	1.669,00
1 221.00.342.40 2022	Mater. Hornik. Besteak. Futbol zelaia	12.000,00	5.000,00	17.000,00
1 226.00.342.10 2022	Mat Horn Beste Kirolegia soinketa gela	4.000,00	13.000,00	17.000,00
1 221.00.153.40 2022	Mat Horn erremintak, etb. Obra brigada	3.500,00	3.000,00	6.500,00
1 226.00.342.20 2022	Mater. Hornik. Besteak Igerilekua	3.000,00	5.000,00	8.000,00
1 226.04.334.00 2021	Kultur ekintzak.	0,00	1.705,00	1.705,00
1 227.00.920.00 2021	Idazkaritza kontuh. zerbitzuak	0,00	726,00	726,00
1 227.07.134.00 2021	Azterketak.Mugikortasuna	0,00	11.601,48	11.601,48
1 227.07.920.01 2021	Ondasunen inbentarioa	0,00	7.233,40	7.233,40
1 227.99.334.00 2021	Kultur zerb. Ikastaroak	7.747,58	3.536,45	11.284,03
1 227.99.412.00 2021	Arantzazumendi sasi eta hesia	0,00	5.480,09	5.480,09
1 623.02.165.00 2021	Argiteria publikoa	2.845,92	2.870,97	5.716,89
1 210.00.933.00 2021	Konp. Mant. Konts. Hainbat eraikin	7.990,30	389,22	8.379,52
1 227.00.171.00 2021	Lorategi eta parke zerbitzua	0,00	3.325,08	3.325,08
1 601.05.151.02 2022	Bizikleta pump track	16.577,00	3.000,00	19.577,00
1 226.00.165.00 2022	Mat. horn. besteak elektrikoak	10.000,00	4.000,00	14.000,00
1 227.06.151.00 2022	Hirigintza arloko azterketak	14.520,00	20.000,00	34.520,00
1 230.00.414.00 2022	Dietak. Ingurum 1. sektor funtzionarioa	0,00	200,00	200,00

1 131.01.241.00 2022	Lan sustapena. Langilea	12.000,00	4.000,00	16.000,00
1 226.00.920.00 2022	Mater. Hornik. Besteak idazk. Kontu	4.000,00	3.000,00	7.000,00
1 226.00.933.00 2022	Mat,horn,beste. Hainbat etxe eta lokal	7.500,00	3.000,00	10.500,00
GUZTIRA		110.080,80	105.236,69	215.317,49

Puntu hau bozkan jartzen da eta AHOBATEZ onartzen da.

5. 2021eko Kontu Orokorraren onespeneren berri ematea

2021eko Kontu Orokorren behin behiniko onespena GAOn publikatu zen eta epea igarota, erreklamaziorik aurkeztu ez den heinean, behin betiko onartu direnaren berri ematen da.

6. AGITAXek proposatzen duen tarifen eguneratzea onartzea, hala badagokio

AGITAX elkartetik taxiaren tarifaren eguneratze proposamena iritsi da, ahobatez onartzen da.

PROPUESTA TARIFA URBANA 2023					
2023ko HIRI BARUKO TARIFA PROPOSAMENA					
TARIFA1*			TARIFA 2**		
Bajada de bandera	Kilómetro recorrido	Hora de espera	Bajada de bandera	Kilómetro recorrido	Hora de espera
Abiasaria	Egindako Kilometroa	Itxaron Ordua	Abiasaria	Egindako Kilometroa	Itxaron Ordua
4,1288	1,2926	24,6886	4,1288	2,0615	38,8025

7.Egonkortze-prozesuari dagokionez Aldundiari enkomienda egitea onartzea, hala badagokio

Ahobatez onartzen da

8.Emakumeenganako indarkeriaren kontrako adierazpena proposamena onartzea, hala badagokio

Ahobatez onartzen da

9. Gipuzkoako URAKekin enkomienda sinatzea

Ahobatez onartzen da

10. Euskararen eguneko adierazpena onartzea, hala badagokio

Ahobatez onartzen da

11. Galderak eta eskaerak

Izal Baik ondorengo alegazioak burutzen ditu:

- Igerilekuko harrerarekin Udalak neurriak hartu behar dituela uste du eta igerilekuaren kudeaketarekin zerikusia duten kontratuak ikusi nahi ditu.
- Turismoko teknikariak egiten zituen funtzioak beste langileen artean nola banatu diren jakin nahi dute.
- Arekeko gaiari buruz informazioa jasotzea eskatzen dute.
- Aipatzen du Kreditu aldaketak direla eta, badaudela pertsona batzuk ez dutenak kobratu, zehatzago, ongizateko laguntzak jasotzen dituztenak.
- Azkenekoz izendatu zen idazkari akzidentalak postu horretarako baldintzak betetzen dituen galdetzen du, horren inguruko informazioa jaso nahi dute.

Behin puntu honetara, iritsita, arratsaldeko 19:15 direnean, bilera bukatutzat ematen da, eta bertan erabakitakoa jaso dut efektuak izan ditzan.

Idiazabalen, 2022ko abenduaren 1ean.

ALKATEA

Iñaki Alberdi

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA

Garazi Arraibi